

Plan Funtzionala aldatzeko eskatu dute Asuncioneko langileek

ELA eta LAB sindikatuek salatu dute ospitale berriaren planari azterketa zorrotzagoa falta zaiola, eta ez dela zehazten Asuncion Klinikako langileekin zer gertatuko den // 2

Goiko postuetan kokatu nahi dute Tolosaldea trainerua

Tolosaldea Arraun Klubak Euskotren ligan lehiatuko diren arraunlariak aurkeztu ditu; zortzi traineruk parte hartuko duten liga uztailaren 1ean hasiko da Coruñan // 7



Tolosaldea traineruaren aurkezpenean zuten larunbatean, Tolosa. I.T.



IRATISAZAR

«Emitza onak espero genituen, gure aldeko giroa baitzegoen herrian»

ANDU MARTINEZ DE RITUERTO EH BILDUREN TOLOSAKO ALKATEGAIA

Espero baino emitza hobeak lortu ditu EH Bilduk Tolosa, 406 boto gehiago jasota; EAJ-k mila boto galdu ditu azken hauteskundeetatik, eta Xarles Iturbe zerrindaburuak esan du hausnarketarako denbora hartu nahi dutela // 3

Kanporaketako joaneko partida galdu du Lauburu Ibarak

Jaengo Mengibar taldearen aurka 2-8 galdu dute ibartarrek igoera faseko bigarren kanporaketako partida Belabieta kiroldegian // 6

R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

BAZKARIAK
ETA AFARIAK
asteazkenetik
larunbatera.
Egin zure
erreserba!

GAINONTZEKO
EGUNETARAKO
KONTSULTATU

GARAGARTZA BASERRIA • ADUNA • INFO@RZABALA.COM
943 69 07 74 • RZABALA.COM

Lacunza
INGELESA ETA FRANTSESA

UDAKO MATRIKULA IREKIA!

Lopez Mendizabal, 1, Tolosa

Asuncioneako langileek Plan Funtzionala aldatu dezala eskatu diote jaurlaritzari

LAB eta ELA sindikatuek salatu dute ospitale berriaren planari azterketa zorrotzagoa falta zaiola eta aldarrikatzen dituzten hiru ezaugarrietatik bat bera ere ez duela betetzen



Pasa den ostegun iluntzean egindako elkarretaratzea, Tolosako udaletxearen aurrean. J.A.D.

Josu Artutxa Dorronsoro
Tolosa

Asuncion Klinikako langileek hiru eguneko lanuzteak eta zazpi greba egun burutu dituzte maiatzan, euren lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmenaren alde borrokan.

«2021etik berriro gabe dugu hitzarmena, eta urte hauetan eman den KPI kontuan hartuta, %12,2ko erosahalmena galdu dugu. Oraingo egoeran, gero eta langile pobregoak gara, eta honek, ezinbestean, zerbitzuaren okertzea dakar. Hitzarmen berriak, besteak beste, galdutako erosahalmena berreskuratzea, KPIri erreferentzia egingo dion soldata igoera eta 35 orduko lan astea lortzea ekarriko luke», adierazi dute Tolosako udaletxearen aurrean egindako elkarretaratzean.

Ospitale berriaren Plan Funtzionala ezagutu berritan, haserre agertu dira langileak. «Plan Funtzional honek, eraikiko den ospitalea eta eskualdean emango den osasun zerbitzua nolakoa izango den ezartzen du, baina azterketa zorrotzago bat falta du». Hori dela eta, hiru puntu ja-

rri dituzte mahai gainean. Bate-tik, salatu dute ospitale berriaren langileen beharrak jasotzen dituen taulan, agertzen diren kategoria desberdinen artean, ez dela sukalde edo garbitasuneko langilerik ageri. Bestalde, esan dute planean ez dela zehazten zer gertatuko den klinikako langileekin: «Asuncion Klinikako 333 langile daude gaur egun lanean, eta ospitale berriak 320,5 langile behar dituela diote, dagoeneko ESIan dauden 56 langileri beste 264,5 gehituta. Ez da esaten zer gertatuko den Asuncion Klinikarekin, ezta bertan dauden langileekin ere».

Amaitzeko, uste dute ez dagoela asmorik gaur egun Asuncionen ematen diren zerbitzu guztiak barnebiltzeko, «Plan Funtzionalak ingresoa izan dezakeen edozein kirurgia ezabatzen baitu, besteak beste». «Ez da ebakuntza-gelez ezer esaten. Inguruko beste eskualdetako ospitaleek dituzten zerbitzuak ere ez dira agertzen, obstetrizia eta larrialdi pediatrikoak, adibidez», gaineratu dute.

LAB eta ELA sindikatuek salatu dute Plan Funtzionalak ez duela betetzen ospitale berrira-

ko aldarrikatzen dituzten hiru ezaugarrietako bat bera ere, eta beraz, Eusko Jaurlaritzari plana aldatu dezala eskatu diote, eta ospitale berriak izan behar dituen ezaugarrien alde lan egiteko konpromisoa exijitu diete udal hauteskundearen ondoren Tolosako eta eskualdeko udal gobernuei. «%100ean publikoa izatea, zerbitzu guztiak izatea eta gaur egun Asuncion Klinikako dauden langile guztiak bertan egotea dira konpromiso horiek», azaldu dute.

LANUZTEAK GAUR ETA BIHAR

Egun osoko azken greba eguna maiatzaren 17a izan zen; hala ere, atzo, gaur eta bihar lanuzteak egingo dituzte. «Asuncion Klinikak Tolosaldeko herritarrei zerbitzu publikoa ematen die, eskualdeko ospitale bezala funtzionatzen du eta langileek lan baldintza duinak izan behar dituzte. Enpresak orain arte ez du erakutsi negoziatzeko benetako borondaterik, eta berriki, sindikatu eta langileoi epaileak arrazoi eman digun bezala, abusuzko zerbitzu minimoak ezartzeko ahalegin guztiak egin ditu, greba zapuztu nahian».

LABek Siemens Gamesak proposatutako ABEEa gaitzetsi du

Sindikatuak esan duenez, plantako zuzendaritzak hilaren 2an jakinarazi zion asmoa enpresa batzordeari; hiru bilera egin arren, ez dira akordio batetara iritsi

Erredakzioa Asteasu

LAB sindikatuak salatu du Asteasuko Siemens Gamesa lantokiko zuzendaritzak enplegua aldi baterako erregulatzeko espediente (ABEE) aurkeztu duela, produkzio eta antolaketa arazok argudiatuta. Sindikatuaren ustez, lan karga jaitsiera hori ez da gertatzen errealitatean, eta onartezintzat jo du sekulako irabaziak dituen enpresa horretan langileen kontura bermatzen jarraitu nahi izatea diru sarrera horiek. Zuzendaritzak maiatzaren 2an jakinarazi zion espediente irekitzeko asmoa enpresa ba-

tzordeari, eta espediente negoziatzeko aldia hilaren 8an hasi bazen ere hiru bileraren ostean, ez dute inolako akordiorik erdie-tsi.

«Gogorazi behar da Siemens Gamesa Asteasuko lan zentroan langileek borroka bidez lortu zutela, duela hilabete gutxi, enpresaren salmentaren aurrean langileen eskubideak eta lanpostuak bermatzen dituen akordioa», azaldu dute. «Oraingoan ere borrokarako prest gaude. Ez dugu onartuko ABEErik. Ez dugu onartuko enpresaren irabaziak langileen kontura bermatzea», gaineratu dute.

Usabalgo langileen ustez Tolosako Udalak ardura maila handia du

Usabal kiroldegiko langileek gogoratu nahi izan dute kirol instalakuntzak udalarenak direla eta udalak erabaki zuela instalazioak zein zerbitzu publikoa azpikontratatzeko

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Usabal kiroldegiko langileek greban jarraitzen dute. Hauteskundearen aurretik, Tolosako Udalak iragarri zuen bitartekaritza profesionala eskatu zuela bi aldeak akordiora iristeko, eta horren aurrean udalaren ardura nabarmendu nahi izan dute.

«Argi utzi nahi dugu udalak esan duen bezala, bi aldeak arteko akordioa hain gertu egongo balitz, ez genukeela greba mugagabe bat aurrera eramango. Izan ere, negoziaketa guztian zehar azkeneko urteetan galdutako erosahalmena eguneratzeko proposamen desber-

dinei uko egin die enpresak». Esan dute kirol instalakuntzak udalarenak izanda, eta zerbitzua zein instalakuntzak azpikontratatzeko erabaki politiko bat izan zenez, Tolosako Udalaren ardura «erabatekoa» dela. Usabalgo langileak 2020. urte-tik daude hitzarmena iraungita eta azken urteetan erosahalmenak behera egin duela esan dute. Azkenik, Usabal kiroldegiko erabiltzaileak, kirol klubak eta bertan lan egiten duten guztiak izan dituzte gogoan greba dauden langileek: «ulertzen dugu euren atsekabea, baina gure lan baldintzak hobetuz kirol zerbitzu onenak izateko asmoz ari gara greba egiten».

Irati Saizar Artola

Ekainaren 17tik aurrera Tolosa-ko alkatea izango da Andu Martinez de Rituerto (Lazkao, 1967).

Kontentu emaitzekin?

Pozik, bai. Espero genituen emaitza onak, sumatzen genuelako gure aldeko giroa herrian. Hala ere, emaitzek harritu egin gaituzte, alde handia dagoelako. Zinegotzi bat gehiago ateratzeko, 500 botoren aldea atera behar genuen eta 1.200 botoko aldea atera dugu. Hamargarren zinegotzitik oso gertu geratu gara; herritar askoren babesas jaso dugu.

Zein izan da EH Bilduren hazkundearen giltza?

Legealdi osoan zehar proaktiboak izaten saiatu gara, proposamenak egiten, oposizio eraikitzailea egiten, eta gobernuaren jardunarekin kritiko azaldu garenean, beti beste irtenbide bat proposatuz egin dugu. Ez da oposizio hutsala izan, edo protesta egitea, protesta egiteagatik. Herritar askok hori saritu dute, eta herritar askorengana iritsi gara. Tolosan emaitzak bereziki onak izan ditugu, baina orokorrean EH Bilduren mezua Euskal Herri osora zabalduta da.

Zure ustez hautesleek EA Jren kudeaketa zigortu dute?

Nik uste zigorra beraien hautesleen aldetik izan dutela, datuek behintzat hori adierazten dute.

«Irtenbideak bilatzeko gaude, denon artean»

ANDU MARTINEZ DE RITUERTO EH BILDUKO ALKATEGAIA

Espero baino emaitza hobeak lortu ditu EH Bilduk Tolosan; alkatetza lortu du eta 406 boto gehiago jasota, bederatzi zinegotzi izango ditu



I.S.A.

Gure jarrera elkarlanaren aldekoa da beti. Irtenbideak bilatzeko gaude gu hemen, eta ahal bada denon artean. Elkarlanak muga bat du: zintzo egitea lana, norabide berean. Guk hori sumatzen badugu, elkarrekin joateko prest izango gara; sumatzen badugu traba egiteko dela, ez da posible izango, baina erabat irekiak gaude, pentsatzen dugulako erabakiak geroz eta zabalagoak izan, geroz eta egonkorragoak izango direla.

Tolosak zein aldaketa nabaritutuko du zuek gobernatzean?

Auzo guztietara joango gara uztaile bitartean, eta hori aldaketa nabarmena izango da. Hala agindu eta egin genuen kanpaina, eta iruditzen zaigu neurri oso egokia izango dela. Izan ere, batzuetan, badirudi gehien protesta egiten duen horri eman behar zaiola gehiago, baina guk pentsatzen dugu dituzten beha-

rrak jaso behar ditugula eta behar horiek auzo elkartearen ordezkarien mahaia eratzean mahai gainean jarriko direla. Hor erabakiko da zer beharrek duten lehenetsun handiagoa. Ideia hori oso ondo ulertu dute gurekin elkartu diren herritar guztiek.

Gainerakoan, zein proiektu lehenetsiko dituzue?

Diagnostiko bat egingo dugu udaletxe barruan, teknikari guztiekin bilduz. Gure proiektuak, batzuetan, errealitatetik pentsa baino gorago daude, eta proiektu horiek lur hartu behar dute, eta lur hartzeko teknikariak ezinbestekoak dira. Planifikazio bat egingo dugu, lehenengo ehun egunetarako, eta gero legealdi plana finkatzea gustatuko litzaike irail ingururako.

Herritarrek zorrotz begiratzeko dieten gaiak dira, Alde Zaharra, Zumarditxikia, Zubi Berria, ospitale berria...

Horietako proiektu batzuk gure erabateko ardura izango dute, baina beste batzuetan eragiteko ahalmena txikiagoa izango da. Badirudi Zubi Berriaren erabakia nahiko irmoa dela, baina kontaktuan jarriko gara URA agentziako teknikariekin, izan ere horrelako arazo estrukturalak ezin dira irtenbide puntualekin konpondu. Interbentzio integrala behar du.

Ospitalearen gaia ere ez da gure eskumena. Gauza asko argitu behar dira: adibidez, benetan Plan Funtzional horrek kanpoan utziko dituen gaixoak non eta nola artatuko diren eta Asuncion klinikako langileekin zer gertatuko den. Alde Zaharrari eta Zumarditxikiari begira ere, burubelarri lanean jarri behar dugu. Alde Zaharrak urgentziatzeko interbentzioa behar du eta Zumarditxikia berroneratuko dugu, oraingo egitura eta izaera errespetatuz.

Nola antolatuko zarete? Zenbat liberazio izango dituzue?

Aztertu egin behar dugu. Aurreko agintaldian, zazpi liberazio aurreikusten zituen Eudelen markoak Tolosarako, eta hala aritu gara: lau liberazio izan ditu EAJk, bat PSE-EEK eta guk, oposizioan, bi. Printzipioz, aztertuko dugu, baina oposizioak bi liberatu beharko lituzke, guk lau liberazio eta erdi, eta PSE-EEK beste erdia.

I.S.A.

Aztertze eta hausnarketarako denbora hartu nahi du Xarles Iturbek (Tolosa, 1978) datozen egunetan.

Nola baloratzen dituzue EA Jk lortu dituen emaitzak?

Ez dira egun errazak izaten ari, ez direlako espero genituen emaitzak. EH Bildu eta Andu zoriondu nahi genituzke, garaile argiak izan direlako. 3.500 pertsona inguruk eman diote gure alderdiari botoa, eta azpimarratu nahi genuke jende horren sostengua. Herriarengatik, beste leku batetik jarraituko dugu lanean, ez dago besterik.

Mila botoko galera izan duzue. Zerk eragin du?

Goiz da zergatiak ondorioztatze-ko. Arrazoi desberdinak egongo direla pentsatzen dut. Denok ikusi dugu Tolosan gertatu dena, ez dela bakarrik Tolosan gertatu, Gipuzkoa osoko herrietan gertatu da, Bizkaian ere bai neurri batean. Aztertze garaia datoz.

«Sute asko piztu zaizkigu eta herriak epaitu gaitu»

XARLES ITURBE EAJ-KO ZERRENDABURUA

Azken hauteskundeetatik hona mila boto galduta, oposizioan ariko da EAJ datozen lau urteetan; zazpi zinegotzi izango dituzte



I.S.A.

Gu geure onena ematen saiatu gara zortzi urteetan, Tolosan.

Inkestek EA Jren beherakada etor zitekeela ziorten. Hala ere, espero zenuten halakorik?

Egia esateko ez. Jende asko etxean geratu da, eta abstentzioak eragina izan du gurekiko. Hausnartu beharko dugu, zergatik jendea etxean geratu den.

Kudeaketan zer baitetan huts egin duzuela uste duzue?

Seguru baietz, ez gara perfektuak. Gure onena ematen saiatu gara. Ez da agintaldi erraza izan,

sute asko piztu zaizkigu azken hilabeteetan, batzuk artifizialak, baina edozein kasutan, herriak epaitu gaitu.

Alde Zaharra, Zumarditxikia, Zubi Berria, ospitale berria... polemikarako gaiak izan dira.

Proiektu bakoitzak programa oso bat eskatuko luke, gauzak nola eta zergatik izan diren azaltzeko. Hemendik aurrera beste batzuei tokatuko zaie problema horien kudeaketa, eta ikusiko dugu gauzak ez direla hain errazak.

Zein izan da EH Bilduren emaitzaren arrazoia?

Gure alderdiak ez du jakin bere boto emaile potentziala aktibatzen, eta aldiz, EH Bilduk hori ondo egin du, uste dut ahalmen hori daukala ezker abertzaleak. Zazpi zinegotzi lortu dituzue. Zer nolako lana egingo duzue oposizioetik?

Eraikitzailea. Ikusi beharko da gobernuak zer jartzen duen mahai gainean. Horren arabera alderdiak bere posizioak hartuko ditu. Poesiatik prosara pasa beharko dute beste batzuek.

Ze erronka ezin du alde batera utzi Tolosak?

Erronka asko dauzka. Gazteen-tzako etxebizitzak, Zumarditxikia, eta aparkalekuen kontua ere mahai gainean dago, baina gu oposizioan izango gara eta beste batzuek tiratu beharko dute.

ELKARRIZKETAK OSORIK

Elkarrizketak osorik, Ataria.eus webgunean.



Herritar bat, asteburu kulturalaren barruan, Txaramako kultur etxean egin duten erakusketan, atzo. LEYRE CARRASCO

Izaskungo festetako azken eguna ospatu dute

Hamaiketako herrikoiairekin hasi dute egun handia Izaskunen, eta ondoren, bertsoak izan dituzte Egaña eta Peñagarikanoren eskutik

L. Carrasco Ibarra

Ohikoa dutenez, maiatza amaitzeko festa egiten dute Izaskunen, eta aurten ere festa giroan agurtu dute hilabetea. Hain zuzen, Izaskungo jaietako azken eguna ospatu zuten atzo, eta eguraldia lagun izan zuten egun guztian zehar; eguzkia ez ezik, beroa ere egin zuten.

Loatzo Musika Eskolako ikasleek eskainitako dianarekin abiatu zuten atzoko egun handia, eta ondoren, meza nagusia izan zuten ermitan. Azken festa eguna indarrarekin igarotzeko hamaiketako herrikoia izan zuten gero.

Indarrak hartuta, eliza ondoan egin zuten bertso saioak bete zuten plaza. Batzuk oholtza pareko eserlekuetatik gozatu zuten saioa, eta beste batzuek, berriz, tabernako terrazatik, beroari aurre egiteko tragoa eskuan zutela.

Adin guztietako herritar ugari izan ziren Andoni Egaña eta Anjel Mari Peñagarikanoren bertsoez gozatzerantz gerturatu zirenak. Gai jartzailea Joxe Ramon Aldasoro izan zen.

ARRATSALDEKO EKINTZAK

Arratsaldean ere festak ez zuen hutsik egin, eta hainbat ekimenez gozatzeko aukera izan zuten. Arratsaldeko lehen emanaldia Alur dantza taldearekin eskutik izan zen, eta ohiko moduan jende asko gerturatu zen. Jarraian, haurrentzako gozokiak banatu zituzten. Goizeko bertso saiora azaldu ez ziren herritarrek, Egaña eta Peñagarikanoren bertsoez gozatzeko bigarren aukera izan zuten arratsaldean, dantzaren ostean bigarren saioa eskaini baitzuten bertsolariak. Jaien amaiera Ostolaza eta Narbaiza trikitilarien erromeriarekin etorri zen.

Asteburu kulturalari hasiera eman diote Leaburu-Txaraman

Kurtsoan zehar egindako eskulanen eta Fortu Ruiz de Egilaz artistaren lanen erakusketa izan da ikusgai kultur etxean, eta ondoren, tripa betetzeko tartea ere izan dute

Leyre Carrasco

Leaburu-Txarama

Txaramako asteburu kulturala antolatu dute, eta lau egunetan zehar izango da zertaz gozatu bertan. Atzo izan zuten lehen ekitaldi Txaramako kultur etxean. Bertan, kurtsoan zehar egindako eskulanen eta Fortu Ruiz de Egilaz artistaren lanen erakusketa izan zen ikusgai, eta gerturatu zirenek tripa betetzeko hamaiketako izan zuten.

Asteburuan ere jarduera ugari gozatu ahal izango dute. Horietako bat izango da ostegunean 17:00etatik 19:00etara plazan antolatu duten xaboa egiteko ikastaroa, eta ondoren, ardo dastaketa izango dute, gazta pintxoekin lagunduta.

Ostiralean patata tortilla lehiaketa egingo dute, 20:00etan. Lehen bi sailkatuek saria jasoko dute, eta interesatuek lehiaketan izena emateko azken eguna bihar izango dute. Horretarako,

692431327 zenbakira deitu beharko da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, patata tortilla lehiaketarako osagaiak beraiek jarriko dituzte, eta osteguneko ardo dastaketan banatuko dizkiete parte hartzaileei. Egun horretan bertan afaria egingo dute, 21:00etan, eta bertara gerturatzeko bost euro ordaindu beharko dute. Ondoren, Txan magoaren ikuskizuna izango da.

Larunbatean izango da azken festa eguna, eta arratsaldean izango dute eguneko lehen ekintza, 19:00etan kultur etxean izango den *Me Too* antzezlanarekin. Zuhaitzkin izango da autoa uzteko lekua. Bertso-afariarekin emango diote amaiera asteburuari, 21:00etan elkartean, Onintza Enbeita eta Julio Sotorekin batera, eta horren ostean, Txikiren bakarrizketaz gozatzeko aukera izango da. Afariko prezio orokorra 30 eurokoa izango da, eta 15 urtez azpikoek, berriz, 15 euro ordaindu beharko dute.

EGITARAUA

Ekainak 1, osteguna

17:00-19:00. Xaboa egiteko ikastaroa egingo dute plazan, eta jarraian ardo dastaketa pintxoekin.

Ekainak 2, ostirala

20:00. Patata tortilla lehiaketa. Sariak egongo dira lehen bi sailkatuentzat. Lehiaketarako osagaiak antolakuntzakoek emango dituzte osteguneko ardo dastaketan.

21:00. Afaria eta ondoren, Txan magoa. Afarira etorri nahi dutenek bost euro ordaindu beharko dute.

Ekainak 3, larunbata

19:00. *Me Too* antzezlanak kultur etxean. Autoa uzteko aparkalekua Zuhaitzkin egongo da.

21:00. Bertso-afaria elkartean Onintza Enbeita eta Julio Sotorekin, eta afaldu ostean, Txikiren bakarrizketak izango da. Prezio orokorra 30 eurokoa izango da eta 15 urtez azpiko gazteek 15 euro ordaindu beharko dute.



Izaskungo jaietan bertsoez gozatzeko aukera izan zuten atzo. LEYRE CARRASCO

Iñigo Terradillos Albiztur

Giro ederrean egin zuten larunbatean Albizturren Erromeria Eguna. Babarrunarekin ez ezik trikitiarekin ere lotura duen herria da Albiztur, eta ederki aritu ziren hori erakusten.

Kalejiran hasi zuten eguna, eta tabernaz taberna aritu ziren soinu-joleak trikiti doinuekin herria alaitzen. Ondoren, plazan elkartu ziren 200 pertsona inguru bazkalatzeko. Bazkalostean etorri zen eguneko osagai bereziena, aspaldian jendaurrean jo gabeko trikitilariak igo baitziren oholtzara. Arin-arinak, fandangoak, garai batekoak nahiz berriagoak, denetarikoz piezak jo zituzten, eta herri-tarrak pieza askotan animatu ziren, sueltoan nahiz bikotean nahiz taldeka dantza egitera. Ander Malbadi arduratu zen musikariak banan-bana, umore uki-tuarekin aurkezteaz. Hala, Markox Landa, Arandia anaiak, Iñaki eta Ramon, Alaitz Aramendi eta Garazi Zubizarreta edota Malbadi anaiak izan ziren 3-4 abesti jo zituztenak. Festak «jendea aspertu arte» jarraitu zuen.

Lehen Erromeria Eguna arrakastatsua izan da

Aspaldian ohol-tza gainean jo gabeko trikitilarien doinuekin giro ederra sortu zen bazkalostean



Eguzkitakoak behar izan zituzten eguzkiari aurre egiteko. Irudian, bazkalosteko jaialdiaren une bat. I.T.



Ezkerrean, Alaitz Aramendi eta Garazi Zubizarreta. Erdian, Malbadi anaiak, aurrean plaza beterik dutela. Eskuinean, herri-tarrak dantzan. I.T.



Motozale bat hil da Leaburu-Txaraman izandako istripuan

Erredakzioa

Tolosatik Lizartzarako Gi-2135 errepidean istripua izan zen larunbat arratsaldean, 17:30aldera, auto baten eta moto baten artean. Ondorioz, moto gidaria hil egin zen.

Istripua Leaburu-Txaraman gertatu zen, eta Segurtasun sailetik adierazi dutenez hildakoa gizonetxekoa da. Bada, istripua izan eta ordu gutxira auto gidaria atxilotu zutela jakinarazi zuten. 49 urteko gizonetxekoa da, eta Segurtasun sailak esan duenez, positibo eman zuen alkohola eta drogak detektatzeko probetan. Bide-segurtasunaren aurkako delitu bat eta zuhurtziagabe-keria larriko giza hilketa bat leporatu dizkiote.

Hilketa matxista salatze-ko elkarretaratzea egingo dute

Erredakzioa

Gasteizen igandean izandako erailketa matxista salatze-ko elkarretaratzeak egingo dituzte Amasa-Villabona eta Tolosan gaur. Amasa-Villabonaren kasuan, Aiztondoko mugimendu feministek deituta, Oinezkoan zubian egingo dute, 18:30ean. Tolosaren kasuan, berriz, Asanblada Feministak deitutako elkarretaratzea Trianguloan izango da, 19:00etan.

Giro ederra, Berastegiko Euskal Jaian

Jon Miranda Berastegi

Euskal Jaia ospatu zuten larunbatean Berastegin. Goizean pintxo onenaren lehiaketa egin zuten herriko plazan, zazpigarren urtez jarraian, eta herri-tarrak horiek dastatzeko aukera izan zuten.

Aurten ogi gainean sagar ego-sia, odolki arroza, tipula karamelizatua eta tomate marmelada zeraman pintxoak irabazi du sari nagusia. Elixabet Azpiroz, Maite Amondarain, Tere Malkorak eta Ixiar Zubillagak prestatu zuten. VI. Mikroipuin lehiaketan parte hartu dutenentzako ere banatu zituzten sariak. Behin pintxo dastatzea eta sari banaketaren ondoren plazan bertan bildu ziren herri-tarrak bazkaritarako.



Herri-tarrak pintxoak egiten Berastegin, larunbat goizean. I.S.

100 lagun inguru elkartu ziren herri bazkarian. Bazkalostean aulki jokoan aritu ziren, eta ondoren Elizagoien ahizpek jarri zuten giroa.



zozketak

Atarikideentzat **sorta bat** dugu



atariako
Poltsa, katilua
eta kantiplora

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

Lauburu Ibarrak joanekoa galdu du

Bigarren mailara igotzeko kanporaketaren Belabietako partida 2-8 galdu du Jaengo Mengibar taldearen aurka

Erredakzioa Ibarra

Larunbatean Jaengo Mengibar taldearen bisita jaso zuten Lauburu Ibarrak Belabietan, igotzeko playoff-etako bigarren faseko aurkaria. Joaneko partida horretan 2-8 galdu zuten ibartarrek.

Aurkaria area barruan bukatzen ziren ekintzekin asko hurbiltzen hasi zen arren, ondo eutsi zioten Lauburukoek, 13. minutuan defentsan egindako akats larri batek aurkako lehen golarekin kondenuatu zituzten arte. Ondoren, entrenatzaileak atezain-jokalaria ateratzea erabaki zuen, baina atezain aurkariak baloia jaurti, eta ate hutsera sartu zuen atsedenaldirako 3 minuturen faltan. Bigarren gol horrek min handia egin zien ibartarrei, eta horri Uriren kanporatzea gehitu behar izan zitzaion. Are gehiago, bisitariak bat gehiagorekin jolasten ari zirela, 19. minutuan iritsi zen hirugarren gola. Atsedenaldira 0-3koarekin joateak partidaren norabidea markatu zuen.

Bigarren zatian Mengibarrek



Larunbateko partidaren une bat. LAUBURU IBARRA

zentzu guztietan bikain jarraitzen zuen, eta beste faktore askoren artean, moreen nekeak eta animo mailan eragina izan zuen markagailuko alde nabarmenak. Horrela, amaierarako 8 minutura, 6 goleko aldearekin nagusitu ziren Jaengoak, eta Lauburuk bi gol ospatzeko aukera izan bazuen ere, biak Chukyren eskutik, bisitariak behin-betiko 2-8koa ipintzeko denbora izan zuten. Emaita gorabehera, oso harro

daude Lauburukoak egindako bideaz, eta hasierako ilusio bera-ekin bidaiatuko dute Jaenera ostiralean.

Lauburu Ibarratik eskerrak eman dizkiete «errespetua» erakutsi, eta jokalariei «animoak eta maitasuna» adieraztera mugatu ziren zale guztiei. «Horrekin batera, Lauburuko balioekin inondik inora bat egiten ez duen jarri bakoitza gogor salatu nahi dugu beste behin», esan dute.

Kutturru taldeak hartu du abantaila



Kutturru eta Aizarnazabal taldeetako kideak, larunbatean. ATARIA

Erredakzioa Ikaztegieta

Areto futboleko Gipuzkoako Herri Txikietako Txapelketaren joaneko partida jokatu zen larunbatean Ikaztegieta, herriko Kutturru taldearen eta Aizarnazabal taldearen artean. Neurketa oso polita izan zen, eta ikusitakoaren arabera bietako edozeinek txapela lortu dezakeela argi geratu zen.

Aizarnazabal aurreratu zen 0-2, baina etxekoak neurketa berdindu eta 3-2 jarri ziren. Ondoren Aizarnazabalek partida ber-

dindu zuen, baina gero Aimar Muruaren eta Moharen golek, 5-3koa utzi zuten markagailuan. Itzulerako partida ekainaren 16an izango da, Aizarnazabalen.

«Emaitez gain, bizitako giroa nabarmendu behar da, ikaragarria izan baitzen, eta bi taldeek emandako ikuskizuna ere oso ona», azaldu dute txapelketaren antolatzaileek. «Argi eta garbi geratu zen etorkizunean Herri Txikietako Liga bat behar dela, eta ahalegin bat egin behar dela talde gehiagorekin lehiaketa bat antolatzeko».

Intxurre klubeko jubenilak, txapeladun



Intxurreko jubenilak Gipuzkoako Txapelketa irabazi dutela ospatzen. ATARIA

Erredakzioa Alegia

Alegiako Intxurre futbol klubeko jubenil mailako taldeak Gipuzkoako Txapelketa irabazi du, Usurbil taldeari penaltietan irabazi ostean. Partida 2-2 bukatu ondoren eta luzapena jokatu eta gero, penaltiak jaurtitzeko momentua iritsi zen eta hor erabaki zen txapelketa. Donostiako Ce-

sar Benito futbol zelaian jokatu zen partida.

Bestalde, erregional mailakoek Kopako finalerdia zuten jokoa, eta 2-2 amaitu zuten Dunboa Eguzki taldearen aurka etxean jokaturako partida. Ondoren, luzapenean bi gol sartu eta 4-2 irabazi zuten alegiarrek. Asteburuan, Gipuzkoako Kopako finala dute Aloña Mendiren aurka.

Laskorainek finalerako txartela lortu du

Erredakzioa Tolosa

Laskorain taldeak lehen pausoa eman du datorren denboraldian areto futboleko Bigarren B mailan izateko. Antiguoko taldearen aurkako partida 2-3 irabazi zuten larunbatean, Donostian, eta igotzeko faseko finala jokatu dute asteburuan.

Partidan ondo sartu ziren tolosarrak, bigarren minutuan aurreratu egin baitziren, Xabier Arranzek sartutako gol bati esker. «Finalerdia izanik, oso partida fisikoa eta bizia izan zen, eta ahalik eta akats gutxien egin nahi genituen. Hori dela eta, ez zen oso ikusgarria izan joko alde-rik lehen zatia», esan du Mikel

Juaristi Laskorain taldeko jokariak.


Atsedenaldira abantaila horrekin iritsi ziren horitxoak, eta bigarren zatian Antiguoko taldea beste puntu batekin aterazten. «Fisikoki agian hobeto zeuden, eta bero handia egiten zuen kiroldegian», esan du Jauristik. Area ertzeko falta baten ondoren, lehen gola sartu zuten aurkariak. Zortzi minuturen faltan, Antiguoko aurreratu egin zen markagailuan, eta orduan Laskorainek atezain-jokalaria ateratzea erabaki zuen. «Min handia egiten ari ginela ikusi genuen, eta azkenean berdinketa lortu genuen, Beñat Aldalurrek sartutako golarekin», dio Juaristik.

Gol horren ospakizunetan bigarren txartel horia jaso zuen Laskoraingo jokalariek, eta bi minutuz jokalariek bat gutxiagorekin egon ziren. Markagailua defendatu zuten, eta ondoren atezain-jokalariekin hasi ziren berriro jokatzen. 30 segundoren faltan, Jon Ander Cuadrado sartu zuen garaipenaren gola, eta azken segundo horietan markagailuari eustea lortu zuten tolosarrak.

Igoera faseko finalerdia irabazita, asteburuan Gernikaren aurka jokatu dute finala, beraien etxean. Final hori irabazten duenak lortuko du datorren denboraldian Bigarren B mailan jokatzeko.

Euskotren ligako goiko postuak dituzte helburu

TAK klubak aurtengo Tolosaldea trainerua aurkeztu du; uztailaren 1ean dute Euskotren ligako lehen estropada



Tolosaldea traineruko arraunlariak, larunbatean, Tolosako Triangulua plazan egindako aurkezpenean. I. TERRADILLOS

Iñigo Terradillos

Tolosaldea Arraun Klubak aurtengo Euskotren ligan bigarren aldiz lehiatuko den Tolosaldea traineruaren aurkezpenean egin zuen larunbatean, Tolosako Triangulua plazan. Euskotren ligan jaitsiera fasea ekidin eta goiko postuetan mantentzeko lehiatuko direla azaldu zuten traineruko kideek.

Coruñan hasiko da Euskotren liga uztailaren 1ean, eta bertan lehiatuko da Tolosaldea trainerua, beste zazpi ontzirekin. Liga hasi aurretik, baina, Tolosaldeko arraunlariak hitzordu gehiago izango dituzte. Datorren asteburuan, esaterako, Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute Zarautzen. Gainera, trainerilletan parte hartu dute aurtengo estreinakoz, eta Gipuzkoako liga eta txapelketa irabazi dituzte.

Denboraldi berrirako traine-

ruaren aurkezpenean, Maialen Amondarain taldeko patroiak esan zuen iazkoa gorengo mailan lehen urtea izan zuten, aurtengo «buru gehiagorekin» jokatu asmo dutela. Zortzi traineru lehiatuko dira, eta goiko postuetan kokatzea nahiko lukeela azaldu zuen. Orain arteko esperientzia «oso polita» izaten ari dela kontatu zuen eta taldean duten «giro ona» nabarmendu zuen: «Bateletan aritutakoak gara, traineruetarako pausoa handia da, baina behin egokituta asko disfrutatzen da».

Garazi Sorozabal taldekidea- rentzat ere iazkoa lehen urtea izan zen traineru nagusian, eta hasieran pixka bat kosta bazitzaion ere, oso gustura aritu zela kontatu zuen. Aurtengo denboraldiari begira «lasaitasun handiagoarekin» ariko direla esan zuen. «Badakigu ikasteko asko geratzen zaigula, lan handia du-

gula egiteko, beraz, lasaiago bai, baina, aldi berean, lo hartu gabe». Aurtengo denboraldian neguan eginiko lana erakutsi nahiko luketela azaldu zuen: «Taldeari eman ahal diodan guztia eman nahi diot, ea ahal dugun onena ematen dugun eta disfrutatzen dugun».

Ramon Erostarbe da Tolosaldea traineruaren entrenatzailea eta Manex Balerdi laguntzailea. Erostarbek bigarren urtea du entrenatzaile moduan. Iaztik, zazpi baja egon direla adierazi zuen. Lau hutsune kanpotik etorritakoekin osatu dituzte, eta gainerakoak jubenilekin. Taldea «lan ona» egiten ari dela esan zuen, eta «gerra pixka bat» emateko moduan direla. Aurtengo denboraldirako play-offa ekiditea eta ahalik eta goren amaitzea dela helburua adierazi zuen. «Kontxan amaitzen badugu seinale ona izango da».

Ait Chaou garaile, Zaldibiako Mendi Lasterketan

Erredakzioa

Hassan Ait Chaouk irabazi zuen larunbatean jokatu zen IV. Zaldibiako Mendi Lasterketa. Soronea-Ammma taldeko korrikalari billabonatarak ia bost minutuko aldea atera zion bigarren sailkatu zen Iñaki Olano taldekide altzotarrari proba luzean, eta errekor berria ezarri zuen. Proba motzean, Leire Elola tolosarra bigarren izan zen.

Ausa Gaztelu Mendi Klubak antolatuta, bi proba egin ziren IV. Zaldibiako Mendi Lasterketan: proba luzea (28 kilometro eta 1.950 metroko desnibel positiboa) eta motza (15 kilometro eta 1.000 metroko desnibel positiboa), eta inoizko partaidetzarik handiena izan zen; guztira, 308 korrikalarik parte hartu zuten.

Lasterketa luzean, gizonetako mailan, Soronea-Ammma taldeko Hassan Ait Chaouk billabonatarak irabazi zuen, iaz bezala; aurtengo, gainera, errekor berria ezarri zuen: 2.24.32. Iñaki Olano taldekide altzotarra bigarren izan zen (2.29.01), eta eskualdeko beste bi korrikalari sailkatu ziren lehen bosten artean: Jon Zubeldia asteasuarra laugarren (2.47.11) izan zen eta Jon Altuna ibartarra bosgarren (2.49.40). Emakumezkoetan, Soronea-Ammma taldeko Oihana Zubillaga anoetarra laugarren izan zen (3.42.45), hirugarren postutik 11 minutura.

Lasterketa motzean, emakumezkoetan, garaipenetik oso gertu geratu zen Soronea-Ammma taldeko Leire Elola tolosarra.

Bigarren izan zen (1.31.50), Irati Larrañaga taldekiarengandik minutu pasatxora (1.30.18). Gizonezkoetan, Mikel Gabirondo irurarra zortzigarren izan zen (1.17.24), eta Eneko Gurrutxaga amasarra bederatzigarren (1.18.00).

Goierri Koparako azken-aurreko lasterketa puntuagarria izan zen Zaldibiakoa. Azkena irailaren 10ean izango da: Idiazabalgo Axari Trail mendi lasterketa. Une honetan, trail modalitatean, gizonetakoetan, Jon Zubeldia hirugarren postuan dago sailkapen nagusian. Emakumezkoetan, berriz, Ainhoa Egiguren da eskualdeko onena; seigarren postuan dago. Esprint modalitatean, gizonetakoetan, eskualdeko lau korrikalari daude lehen zazpi postuetan: Mikel Gabirondo irurarra bigarren, Jokin Tolosa anoetarra hirugarren, Eneko Morales tolosarra bosgarren eta Axier Artola amezketarra zazpigarren. Emakumezkoetan Leire Elola da eskualdeko onena; hamaikagarren postuan dago tolosarra.

EREÑOTZUN, ESKUALDEKOAK PODIUMETIK GERTU

Larunbatean ere XI. Ereñotzuko Mendi Lasterketa jokatu zen, 12,25 kilometroko luzera eta 835 metroko desnibel positiboarekin. Eskualdeko korrikalariak ez zuten zorterik izan. Gizonezkoetan, Haritz Zubillaga zizurkildarra laugarren izan zen, podiumetik minutu eskasera. Emakumezkoetan, Irati Garro tolosarra bosgarren izan zen, hirugarren postutik bost minutura.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€

HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2023KO MAIATZAK 30
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 30

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Gasteizko hilketa matxista salatzen elkarretaratzea, Oinezkoen zubian, 18:30ean.

Amasa-Villabona. Bizipoza jaiaren aurkezpen ekitaldia, Gurea antzokian, 18:30ean.

Berrobi. Katixa Agirreren Berriz zentauro liburua aztertuko dute irakurle taldekoek, 19:30ean.

Tolosa. Tolosako Hezkuntza Mahaia abiarazteko bilera. Kultur etxean, 17:30ean.

Tolosa. Gasteizko hilketa matxista salatzen elkarretaratzea, Trianguloan, 19:00etan.

Tolosa. Galtzaundiren tertulia literarioa. Ramon Saizarbitorien *Egunero hasten delako* aztertuko dute. Kultur etxean, Yurre Ugartek dinamizatuta, 19:00etan.

28 KANALA

15:00. Elkarriketap.

15:30. Tolosaldea gertutik.

16:30. Eugeniren txokoa.

21:30. Tolosaldea Gertutik.

22:00. Ajoarrieroa.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena.

10:00. Patxadaz. Elkarriketen tartea.

12:30. Pasahitza. Albisteak.

14:00. Telesailak. Alain Rekondorekin.

18:00. Amalurra. Ingurugiroari buruzko saioa.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. E. Mujika Martinez. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Zabalzarretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro nahasia. Goizean erdi eta goi-mailako hodei batzuk agertuko dira, baina

giro ateria izango da. Eguerdia eta arratsaldeko lehen orduak nahiko eguzkitsuak izango dira, baina arratsaldeak aurrera egin ahala bero-hodeiak garatuko dira. Azken orduetan ez da baztertzeko ekaitzen bat lehertzea. Haizea goizean aldakor ibiliko da, eta arratsaldean iparraldera egingo du. Tenperatura igo egingo da, 22-24 graduan joz goia.



Bihar. Antzeko giroa. Goizean erdi eta goi-mailako hodeiak ostarteekin tartekatuko dira eta giro atsegina izango da. Arratsaldean zehar berriz ere bero-hodeiak garatuko dira, baina ekaitzetarako joera txikia izango denez, orduan eta lekuri gehienetan ateri eutsiko dio. Goizean haize aldakorra izango da, arratsaldean iparraldekoa nagusituko delarik. Tenperaturaren aldaketarik ez, 22-24 graduan joz goia, egunaren erdiko orduetan.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



MUSIKA TXOKO GUZTIETAN

Aurtengo Musikerriak ere musika Tolosako txoko guztietara eraman du. Goizean dultzaina eta txaranga doinuak entzun ahal izan ziren, eta ondoren erdiguneko kaletan eta plazetan aritu ziren musikariak. Orotara, 20 musika talde baino gehiago eta 200dik gora musikari aritu ziren giroa alaitzen. Zerkausian bazkaldu ostean, festak jarraipena izan zuen arratsaldean txaranga doinuekin, eta gauean bi kontzertuz gozatzeko aukera izan zen. I.T.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus - 107.6 fm -

atarikideen
abontailak

EHUN FISIOTERAPIA

%10eko
deskontua



PANTTA

Ardoa opari



TXINDOKIKO ITZALA

%10eko
deskontua



SOLUMOBEL

100 euroko
deskontua



ataria.eus/kideak

